



IRIZPEN ZK.: D18-015

MANKOMUNITATE BATEKO UDALEK MANKOMUNITATEARI DATU PERTSONALAK LAGATZEARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTA BATEN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) [...] Mankomunitatearen kontsulta bat jaso dugu goiburuan adierazitako gaiari buruz.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta egin duen mankomunitateak eskatu nahi die bertako udalei, [...] Udalarri izan ezik, hiri hondakinen udal erroldan dauden datu pertsonalak atzitzeko baimena, hau da, erabiltzailearen izen-abizenak, helbidea eta NAN zenbakia atzitzea, honako zereginetarako: HH (hiri hondakinen) edukiontzia irekitzeko txartelen kudeaketa zereginetarako, kontrolatzeko erabiltzaileek nola erabiltzen dituzten edukiontzia, eta legez ezarritako zehapen-araubidea ezartzeko, bide publikoan dauden biohondakinen edukiontzia erabiltzeko araubidea urratzen denean.

Era berean, kontsulta egin digun toki-erakundeak industriako bilketa-zerbitzu publikoa emateagatik eta hiri-hondakin solidoen tratamendu eta aprobetxamendu edo ezabatzeagatik eta zerbitzu horri lotuta dauden gainerako jarduerengatik tasa ezartzen eta eskatzen du [...] udalerrriaren eremuan; eta zerbitzua emateko, udal horretako hiri hondakinen tasaren errolda erabiltzen du. Badirudi horregatik ez dizkiola kontsultak eskatzen [...] Udalarri errolda horretan dauden datu pertsonalak atzitzeko baimena.

[...] Mankomunitatea udalez gaindiko toki erakundea da, eta Mankomunitateak ematen du Mankomunitatea osatzen duten udalerriek sortzen dituzten etxeko hondakin eta merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak biltzeko zerbitzua. Hona udalerrriak: [...].



Kontsulta ikusita badirudi Mankomunitatea lehendik ari dela tratatzen zerbitzu horretako erabiltzaileen datu pertsonalak, hain zuzen ere, mankomunitatutako udalerrietako hiri hondakinen erroldan dauden datuak, hiri hondakinen edukiontziak irekitzeko txartelak kudeatzeko. Orain arte udalerrri horien tratamendu-eragilea izan delako tratatu ditu datuak, eta helburu horretarako izenpetutako zenbait enkargu-kontratuen indarrez.

Baina, Mankomunitatearen 2018ko maiatzaren 16ko Batzar Orokorrak behin betiko onartu zuen udalez gaindiko erakunde horretako hiri-hondakinen gaikako bilketaren zerbitzua arautzen duen Ordenantza; eta aurrerantzean edukiontziak irekitzeko txartelen kudeaketaz arduratzeaz gain, legez aurreikusitako zehatzeko ahalmena ere egikaritu beharko du edukiontziak erabiltzeko araubidea betetzen ez denean.

Kontsulta dioenez, horretarako tratatu nahi dituzten datuak dira erabiltzaileen izen-abizenak, helbidea eta NAN zenbakia; eta argi dago datu horiek datu pertsonalak direla, hala xedatzen baitu 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak 4. artikuluan. Datu tratamendua zer den ere definitzen du. Hona definizioak:

“1) «datu pertsonalak»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago.”

“2) «tratamendua»: datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea”.

Kontsultak aipatzen duen datu tratamenduak nahitaez bete beharko du Erregelamendu Orokorra eta gainontzeko araudi ezargarria. Eta datu tratamendua legezkoa izateko, Erregelamendu Orokorren 6. artikulua dio gutxienez bertan jasotako baldintzetako bat bete beharko dela, eta tartean dago interesdunen adostasuna [6.1.a) artikulua].

Adostasunaren faltan, datu tratamendua legezkoa izan daiteke, baina *“tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko”* [6.1 f) artikulua], eta baldin eta *“tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion Batasuneko edo Estatu kideetako zuzenbidean ezarrita badago”* (6.3 artikulua), eta Erregelamendu Orokorren baldintzen arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 25.1 artikulua zera dio: *“Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduerak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko eskaini ditzake, artikulua honetan aurreikusitako terminoetan”.*

Eta 25.2 artikulua honakoa xedatzen du: *“udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarrirako moduan, bete beharko dituela bere eskumenak: (...) b)*



Hiri-ingurumena: batik bat parke eta lorategi publikoak, hiriko hondakin solidoen kudeaketa, eta hiri-eremuetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesak”.

Era berean, 26.1 artikulua dio *“Udalerriek honako zerbitzu hauek eskaini beharko dituzte beti: a) Udalerri guztietan: herriko argiteria, hilerria, hondakin-bilketa, kale-bideen garbiketa, edateko uraren etxeko hornidura, estolderia, biztanle-guneetarako irispideak, eta herri barruko bideen zoladura (...)*”.

Eta Mankomunitateei dagokienez, TAOLen 44. artikulua zera xedatzen du. *“Udalerriei, beren eskumeneko zenbait obra eta zerbitzu elkarrekin burutzeko, beste udalerri batzuekin mankomunitateetan elkartzeko eskubidea aitortzen zaie”, eta “Mankomunitateek nortasun eta gaitasun juridikoak dituzte beren helburu zehatzak betetzeko, eta beren estatutuen bidez arautzen dira. Estatutuetan arautu behar dira erakundearen lurralde-eremua, xedea eta eskumena, gobernu-organoak eta baliabideak, iraunaldia eta beren jardunerako beharrezko diren beste arlo guztiak”*.

Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua honako eskumenak ere finkatzen ditu udalerrien berezko eskumenen artean: *“Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea”* (17. artikulua).

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 87. artikulua dioenez *“toki erakundeek, bakoitzak ingurumena babesteko dituen ahalak egikaritzeko, ingurumenari buruzko udal ordenantzak onartu beharko dituzte”*.

Azkenik, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen (2011ko uztailaren 29ko 181. zk. BOE) 12.5 artikulua xedatzen du toki erakundeen nahitaezko betebeharra dela *“etxe, denda eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, bertako ordenantzek xedatzen dutenaren arabera eta lege honek ezarritako esparru juridikoaren baitan, eta, halakorik badago, autonomia erkidegoek xedatutako legeekin eta Ekoizlearen Erantzukizun Erantsiaren arloko araudi sektorialarekin bat. Udalerriek eman beharko dute zerbitzua, eta modu independientean ala elkartuta eman ahal izango dute”*. Era berean, toki erakundeek izango dute **“bakoitzak bere eskumen esparruan, zaintza eta ikuskaritza ahalmena eta zehatzeko ahalmena”**.

22/2011 Legearen 49.3 artikulua toki entitateen titularrei esleitzen die zehapen ahala: 12.5 artikuluekin bat etorritik, tokiko erakundeei hondakin batzuk biltzea eta kudeatzea egokitzen zaienean hondakin horiek abandonatzen, botatzen edo kontrolik gabe desagerrarazten badira, edota tokiko ordenantzetan aurreikusten diren baldintzak bete gabe entregatzen badira, zehatzeko ahalmena tokiko erakundeetako titularrei dagokie.

Azaldutako araudi guztia betetzeko, [...] Mankomunitateak behin betiko onartu zuen 2018ko maiatzaren 16ko Ordenantza, etxe-hondakin eta merkataritza-hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua arautzen duena [...] Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan (GAOren 106. zk., 2018ko ekainaren 4a). Eta Ordenantzak dio zatien arabera bereizitako hondakinen gaikako bilketa-sistema behar bezala erabil dadin sustatzeko, zerbitzu hau derrigorrezkoa izango dela erabiltzaile guztientzat eta ordenantza honetan azaltzen diren erregelen eta arauen arabera erabili beharko dutela (38.4 artikulua).



Ordenantzan daude araututa arau-hauste eta zehapen guztiak, eta Mankomunitateari esleitzen dio zehatzeko ahalmena (33. artikulua). Gainera, Ordenantzaren 38.4 artikulua dio Mankomunitateak erabiltzaileen errolda bat duela.

Esandako guztiarekin bat, ateratzen den ondorioa da [...] Mankomunitatea legitimatuta, dagoela tratamenduaren arduraduna delako, erabiltzeko zerbitzuaren erabiltzaileen datuak, behar-beharrezkoak dituztenak Ordenantzak esleitzen dizkion ahalak egikaritzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 31